

Hogeita sei urte geroago
Karlos Linazasoro
“Auskalo Bumeran” saila
Erein, 2006
10 urtetik aurrera

Bizitzaren gurpilean

Bere ohiturari jarraituz, Karlos Linazasorok beste kontakizun bitxi bat proposatu digu *Hogeita sei urte geroago* izenekoan. Bitxia, lehenbizi, hautatutako narratzailea jaio gabeko haur-edo bat delako. Eta, narrazioak, sortua izan zen momentutik (“Babarrun bat, dilista bat, arroz ale bat baino tikiagoa naiz”) erditua izango den unera bitarteko aldia hartzen du. Hilabete horietan zehar gertatu ohi diren gauzak hartzen ditu hizpide: predictor-a, ginekologoari egindako lehen bisita, amaren goragale-zorabio-kapritxoak, albistearen berri ematea, sexua jakiteko ekografia, pozak eta nekeak... den-denak, esan bezala, jaioko den umearen ikuspuntutik. Tankera horretako narrazioari neurria hartzea zaila da, eta akaso horregatik ez da guztiz sinesgarria gertatzen (halakorik sinesgarri gertatu beharko balitz; balio bedi, bide batez, narrazioaren bitxi azaltzeko); aste gutxi batzuk dituela, hauxe dio: “Ezin dezaket zuhur-zuhur esan, baina uste dut hiruzpalau aste daramatzadala hemen sarturik. Gutxi gora-behera, hogeitau egun. Edo hogeita bost. Ezinezkoa da xuxen-xuxen jakitea, hemen barruan berdina dira eta gauak eta egunak. Honaino ez dira eguzkiaren errainuak sartzen, oker ez banago gorriak eta urdinak direnak, kolore askotakoak” (6. or.). Handik gutxira, berriz, beste hauxe dio ginekologoari egindako lehen bisitan: “Hogeitau minutu itxaron genituen azal-kolore desberdinetako haurren argazkiez betetako itxarongelan: umetxo zuriak, gorriak, beltzak edota horiak. Ez nuen ikusi umetxo berde edo urdinik, eta benetan arraroa irudituz zitzaidan” (15. or.).

Bitxia da (baina jadanik ez hainbeste), bigarrenik, erabilitako estilo bereziagatik: Karlos eta Karmele senar-emazteen arteko elkarrizketa ez-titsu-hanpatu-parodikoak dira horren ezaugarri bat, “Bota gorriak” eta “Bestiariora. Hilerrikoiak” liburuetan antzekoak aurki badaitezke ere. Senar-emazteek, narratzailearen gurasoek, primeran ulertzen dute elkar, eta partitura bat balitz bezala interpretatzen dute unean uneko egoera. Gainera, dituzten lanbideek (ume txikien hezitzailea bata, zaharren hezitzailea bestea) aukera ematen dute kontrastez beteriko elkarrizketa biziak sortzeko.

Estilo horretako beste ezaugarri bat pertsonaietako batek Karlos izena izatea (egilearen fikzionalizazioa deitu nion nik aurrekoan), eta pertsonaia horrek idatzitako lantxoak bigarren mailako testu gisa tartekatzea. Oraingoan hiruzpalau ipuin labur dira senarrak emazteari kontatzen dizkionak, xalo-xaloak; baina “Bestiarioa. Hilerrikoiak” hartakoek funtzio estrukturala zuten.

Azkenik, Linazasorearen pertsonaia bitxien galeria handituz doa liburutik liburura. Orain artekoei, *Hogeita sei urte geroago* honetako beste batzuk gehitu behar zaizkio, hala nola entziklopedia saltzaile xelebrea, edo oraindik jaio ez den narratzailearen aitona txakolin zale zalapartatsuak.

Amaierako kapituluak argitzen du liburuaren titulua, eta baita liburua bera eta bizitzaren ikusmolde zikliko bat biribiltasunez ixten.

Manu Lopez Gaseni